



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza

Asteartea  
2008-07-22

VIURTEA 1.492.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## BUKATUTA ETA HASTEAR

**ALEGIA-VILLABONA** Karmenei agur esan diete Alegian; Villabonan atzo aurkeztu zuten santioetako egitaraua

**DENETARIK** Inude eta artzaien konpartsa berritasunen artean dago; jai batzordeari eskerrak eman dizkio Udalak 3-5



**Kolektorearen lanak martxan jarriko dituzte Kondeaneko aldapan, bihar**

**TOLOSA** Zirkulazioa itxi egingo da baina garajeetara sarbidea bermatuko dute 4



Jose Manuel Villegas. HITZA

**Ultra Rail Aneto proban Jose Manuel Villegas hirugarren**

**TOLOSA** Senior mailan lehena izan zen; Josean Bakerok 26. amaitu zuen 2

**Paletako txapelketako sailkapen faseko azken partidak, gaur eta bihar**

**TOLOSA** Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteak sailkatuko dira finalerdietara 4



Alegian Argentinako Ballet Nazionalaren emanaldia arrakastatsua izan zen; behean, Santio jaien aurkezpenean, Izagirre, Arrieta eta Abaigar. P. RENOBALES/I. GARCIA

Asteburu honetan, hau da, larunbatean eta igandean, lehenengo Ultra Rail Aneto mendi lasterketa izan da Benasque bailaran (Huesca). 62 kilometro luzerako goi mendiko proba gogor honetan eskualdeko mendizaleen parte-hartzea ere izan da, eta ez nolana hiko, gainera; Jose Manuel Villegasek hirugarren eta Josean Bakerok 26. postuan amaitu zuen.

## «Horrelako proba gogor bat egitea buruan beti izan dudana zerbait da»

JOSE MANUEL VILLEGAS › Korrikalaria

I. TERRADILLOS

Jose Manuel Villegas 35 urteko tolosarrak sailkapen orokorrean hirugarren postuan amaitu zuen Ultra Rail Aneto proba, 9 ordu eta 20 minutuko denborarekin. Bere mailan, hau da, senior mailan, lehen postua erdietsi zuen. «Oso gustura» dagoela esan du, eta ez zuela espero horrelako emaitza onik lortzea.

**Horrelako proba gogor batean hirugarren postua lortzea ez da erraza izango.**

Ez, oso proba gogorra baita. Nik oso konzentratuta egin nuen bide guztia; jan behar nuenean janean,

edanez, seriotasun handiz. Halako batean, bosgarren nindoala esan zidaten ikusleek, eta aurrerago, berriaz, laugarren. Gero hor egon nintzen nire aurrean zihoana pasaz eta ondoren berak ni... Eta azkenean, hirugarren heldu nintzen amaierara.

**Aurten lehenengo aldian zuen proba honek.**

Bai, baina duela 10 urte-edo egiten zen beste Anetoko igoera bat; hura debekatu egin zuten ekologisten kezentatik. Aurten hasi denak 62 kilometroko luzera zuen; ibilbidearen %50a 2.000 metrotik gora, 2.400 metro baino gehiagoko hiru

mendi-lepo eta puntu gorena Salenques mendi-lepoan, 2.807 metrotan. Piriniotako zazpi bailararik igarotzen zen: Benasque, Barrrancs, Salenques, Anglos, Llauset, Llosars eta Ballibierna. Horretaz gain, bakoitza bere kaxa baliatuzeko proba da hau, horrek esan nahi du norberak janari eta material beharrezkoa eman behar duela: 4.000 kaloria gutxienez janarian, motxila 2 kilo eta erdi materialarekin, mapa, brujula, arropa, dena oso neurtuta. Proba oso gogorra eta teknikoa.

**Ondo prestatuta joan beharko da orduan.**

Bai, beharrezkoa da. Nire kasuan, ia bi urtez egon naiz entrenatzen, astean 6 aldiz edo, eta azken hila-betean prestatzaile batekin.

**14 Orduen Ibilbidea bezalakoa da luzeran, baina desnibela bost aldiz handiagoa da**

**Nolatan animatu zinen horrelako proba gogor batean parte hartzera?**

Beti izan dut buruan horrelako zerbait egitea. Aizkorriko mara-

toian orain 5 urte hartu nuen parte, eta geroztik ez naute deitu, beraz, honekin animatu nintzen.

**Zer du berezia proba honek?**

14 Orduen Ibilbidearen distantzia bera duela esan daiteke, baina desnibela 5 aldiz handiagoa da. Gainera, Pirinioetan da, eta horrek teknika bat eskatzen du. Dena den, 24 ordu zenituen proba osoa egiteko, eta askok lasterka beharrean oinez ere egin zuten.

**Datorren urtean ere errepikatuko al duzu?**

Ikusiko dut, izan ere, ondo prestatu behar da ongi egin ahal izateko.

## «Ez nuen horrelako emaitza espero maila handia baitzegoen»

JOSEAN BAKERO › Korrikalaria

I. TERRADILLOS

Josean Bakero 26 urteko tolosarrak ere postu onalortu zuen Ultra Rail Aneto proban iragan asteburu-azken; 26. postuan geratu zen, 11 ordu eta 40 minutuko denborarekin. Parte-hartzaileen artean zegoen maila ikusita «oso pozik» dagoela esan du lortu duenarekin.

**Espero al zenuen horrelako emaitza lortzea?**

Ez, inondik inora. Sekulako maila zegoen parte-hartzaileen artean, eta ez nuen uste postu hori lortuko nuenik, oso gustura nago.

**Espero zenuen bezain gogorra izan al da proba?**

Ez nuen uste hain gogorra izango zenik. Banekien gogorra zela baina hainbeste ez. Batez ere bigarren zatia zen gogorra, hau da, Salenques-erako igoera. Kontuan hartu behar da 2.800 metrora bi aldiz igo

behar zela, eta gero han goian elurrara eta hotza zegoela. Bestelana hiri ondo moldatu nintzen.

**Proba honetarako nola prestatu duzu zure burua?**

Asko, nahikoa entrenatuta joan nintzen. Mendiko maratoirako apirillean hasi nintzen prestatzen, eta gero Internet bidez ikusi nuen Ultra Rail Aneto proba antolatuta zutela eta animatu egin nintzen. Hemengo probetan hartu dut parte hara joan aurretik, eta nahiko emaitza onak lortu nituen.

**Zer moduzko giroa egoten da horrelako proba batean?**

Oso giro polita zegoen, eta eguraldiak ere asko lagundu zuela esan daiteke.

**Norberak ondo prestatuta joan behar du horrelako proba batera.**

Bai, guztia ondo kalkulatu eta egoten da, gainera. Motxilan eman be-

har duzun pisua eta barruan darrazazua begiratzen dute antolatzaileek, segurtasunagatik, ondo zaintzen dute hori.

**Zer aldatuko zenuke?**

11:00etan abiatu ginen larunbat goizean, eta hurrengo egunera arte, 24 orduko denbora zenuen ailegatzeko. Nire ustez, egokiago izango litzateke lehenago, 08:00ak aldera aterata edo.

**Hurrengo urtean berriro egiteko asmorik?**

Egin nahi dut, asko gustatu baitzait, izan ere, ez du zerikusirik hemen egiten diren probekin.

**Jose Manuel Villegas tolosarrak podiumean amaitu zuen. Zer iruditzen zaizu?**

Sekulakoa. Izugarria iruditzen zait han zegoen mailarekin postu hori lortzea, zoriontzeko modukoa da.



Josean Bakero eta Jose Manuel Villegas. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Zortzi egunetako egitarauaz gozatzeko aukera santiotan

**Villabona** » Udaletik Jai Batzordeko ei eskerrak luzatu dizkiete; inude eta artzairen konpartsa, berritasunen artean.

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak Santio jaien aurkezpena egin zuen atzo udaletxean. Bertan izan ziren Maixabel Arrieta alkatea, Hautsi Izagirre zinegotzia eta Maialen Abaigar zinegotzia. Zortzi egunetako egitaraua osatzerakoan Jai Batzordean aritu diren elkarte eta eragile guztien parte-hartzea eskertu zieten Udaleko ordezkariak. Aurtengo jaiak begira, inude eta artzairen konpartsa aipatu zuten berritasunen artean. «Azken asteotan ehunka lagun ibili dira prestatzen eta Udaletik zoriondu nahi genituzke», azaldu



Maixabel Arrieta, Hautsi Izagirre eta Maialen Abaigar, aurkezpenean. I. GARCIA

zuten. Igandean izango da konpartsaaren eguna.

Baina beste berritasun batzuk ere izango dira festa hauetan. Hala, Euskal Jaiak «bizia eta berritzailea» izango dela azaldu dute. «Zanpantzarrez gain, Kataluniatik 150 la-

gun etorriko zaizkigu giza dorre bat egitera». Santio Egunerako musika bandaren emanaldia berrituratu dute eta aurtengoan Milagro herriko etorriko da banda. Dantza emanaldia egitera Aurtentatik etorriko da Gazte Alai

taldea. Bestalde, zaldiak ere protagonista izango dira eta emanaldi berezi bat egingo dute. Azkenik, aurtengoan, erroskilaren erresusketarik ez da izango eta horren ordez, festei amaiera emateko erroskilaren akelarrea antolatu dute. Ekitaldi honen inguruan ez dute argibide gehiagorik eman nahi izan, ikusmina sortzeko asmoz.

## Talde ugari Jai Batzordean

Festen antolakuntzan, Udaleko ordezkariak gain, herriko elkarte guztien ordezkariak izan da, baita Oinkari eta Oinargi dantza taldeena, Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzena, Onddo Gazte Asanbladarena, jubilatuen elkartekoa, Loatzo musika eskolarena, Arizta taldearena eta Amasako kultur taldearena.

Aipatzekoa da ere, egitarauaren baitan, egun batzuetan ekitaldi bereziak izango direla. Hala, hilaren 25ean Gazte Eguna eta Preso eta Errefuxiatuen Gaua antolatu dute. Hilaren 26ean izango da Euskal Jaiak. Hurrengo egunean inude eta artzairen konpartsa eta hilaren 28an Jubilatuen Eguna.

## Laburrak

### Liburutegiko arduradun lanpostua aldi baterako

**ANOETA** • Liburutegiko arduradun lanpostu bat aldi baterako bete eta lan postua bat osatzeko deialdia egin du Anoetako Udalak. Kontratu irailaren erdialdetik aurrera egingo litzateke, eta hiru urtez gehienez, %52ko lan jardunaldian. Eskeraer aurkezteko azken eguna abuztuaren 14a izango da.

### KZgunea irekita egongo da hilaren 30era arte

**ANOETA** • Anoetako KZgunea zabalik egongo da hilaren 30era arte ondorengo ordutegian: goizez, astearte, asteazken eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara; arratsaldeaz, astelehene ostiralera, 16:00etatik 20:00etara. Arratsaldek ordutegian ONA txartela egiteko aukera egongo da. ONA osasun txartel berria da, doan tramitatzen da eta 16 urtetik gorakoek eska dezakete. Nortasun agiria eta Osakidetza txartel urdina besterik ez da aurkeztu behar. Orain arte 196 txartel tramitatu dira Anoetan eta 106 emanda daude jada.

### Jai Batzordeak zehaztu ditu sanmielen egunak

**IRURA** • Irurako Jai Batzordeak egindako azken bilan erabaki zuen aurtengo San Miguel jaiak irailaren 19, 20, 21, 27, 28 eta 29an ospatuko direla. Haur eta gazteen eguna irailaren 20an izango da, bikoteen eguna irailaren 28an eta jaien bukaera ofiziala irailaren 29an emango zaie, San Miguel egunean. Hala ere, urriaren 5ean KMK-08 jaiak egingo denez Iruran, jubihoi eta pentsiadunen eguna urriaren 12an egingo da. Eguna hauetako ikuskizun eta ospakizunen egitaraua osatzeko hilaren 28an, 19:15ean, elkartuko da Jai Batzordea eta jai herrikoiak antolatzen parte hartu nahi duen gutzia gonbidatua dago bilera horretara.

### Artola garaile Euskadiko Mendi Kriteriumean

**VILLABONA** • Ugaitz Artola txirrindulari billabonatarrak Euskadiko Mendi Kriteriuma irabazi zuen Elgetan. Azpiru-Ugartete taldeko txirrindulariak 13 segundoko abantailarekin iritsi zen helmugara. Atzetik bederatz txirrindulariko talde bat sartu zen eta horietatik hiru bere taldekideak izan ziren.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82 zenbakira.

## » EGITARAUA

### Uztailak 24, etzi

- **16:30.** Frontenis txapelketaren finala Olaederrako frontoian.
- **17:00.** Eskuz binakako herriko pilota txapelketa Olaederrako frontoian.
- **17:45.** Iraunkorrak txaranga plazan eta herrian zehar (txupinazoa-oren ondoren ere).
- **18:00.** Txupinazoa. Hutsunea Betez emakume taldeak egingo du pregoia.
- **18:15.** Erraldoi eta buruhandien irteera Loatzoko trikitilarietara.
- **18:30.** Futbito Txapelketaren finala plazan.
- **20:00.** Preso eta iheslariaren aldeko jabetxearen irekiera Bedura plazan. Gauero irekita egongo da 20:00etatik aurrera.
- **21:00.** Afari herrikoia plazan.
- **23:00.** Danborrada musika eskolatik hasita.
- **23:00.** Dantzaldia Laket taldearekin plazan.

### Uztailak 25, ostirala

- **08:00.** Diana Loatzoko dultzaineroekin.
- **09:00.** Sokamuturra Larrean, Loatzoko dultzaineroekin alaituta.
- **11:00.** XXVIII. Herri Kroa.
- **12:00.** Palaz binakako herriko txapelketaren finala Amasako frontoian.
- **12:30.** Eskuz binakako afizionatuen finala Amasako frontoian.
- **12:00.** Meza nagusia.
- **12:30.** Udak korporazioaren urteroko bisita Santiago egoitzara.
- **13:15.** Milagroko musika banda plazan.
- **17:30.** Oinargi dantza taldearen emanaldia plazan.
- **19:00.** Atari Bizi lehiaketaren sariak plazan.
- **19:30.** Soka dantza plazan Oinkari dantza taldearekin.

- **20:30.** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin plazan.
- **22:30.** Eresargi abesbatzen emanaldia Gurea aretoan.
- **00:00.** Joselu Anaiak plazan.

### Gazte Eguna

- **17:00.** Hasiera kafea eta pastekin Berdura plazan.
- **18:00.** Kalejira Orkestra Nacional taldearekin.
- **21:00.** Pintxo dastaketa plazan.
- **21:30.** Kontzertua Impecables taldearekin plazan.

### Preso eta errefuxiatuen gaua

- **20:00.** Villabonako jaietan gurekin nahi ditugu lelopean enkartelada ixila Iru Aldetan.
- **21:00.** Afari herrikoia eta Villabonako preso eta errefuxiatuei omenaldia Berdura plazan.

### Uztailak 26, larubata

- **08:30.** Diana Loatzoko dultzaineroekin.
- **09:00.** Sokamuturra Larrean Loatzoko dultzaineroekin alaituta.
- **09:00.** Plater Tiraketa Oindo mendian.
- **10:00.** Xake jokua Berdura plazan.
- **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak Loatzoko dultzaineroekin.
- **12:00.** Haurrentzat tailerra eta jolas parkea Txistularien plazan.
- **22:00.** Blues emanaldia Reverendos taldearekin Zaharren Biltokiaren ondoan.

### Euskal Jaiak

- **16:30.** Zanpantzarrak herrian zehar.
- **17:30.** Sagardo eta pintxo dastaketa plazan.
- **18:15.** Colla Vella castells taldearen emanaldia plazan.
- **19:30ean eta 00:00etatik aurrera.**

- **17:30.** Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoak plazan.
- **18:30.** Joko garbi partida plazan.
- **19:00.** Argentinako Gazte Alai dantza taldearen saioa Arroan.
- **20:00-21:30.** Dantzaldia Kupe-la taldearekin plazan.
- **22:30.** Oinkari dantza taldearen emanaldia Arroan.
- **23:30.** Dantzaldia Kupela taldearen emanaldiaplazan.

### Uztailak 27, igandea

- **09:00.** Sokamuturra Larrean Tolosako Dultzaineroekin alaituta.
- **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak Tolosako dultzaineroekin.
- **12:00.** Gaztetxo joko-garbi partida plazan.
- **17:00.** Zaldien dantza Arroan (zaldiak zoru motarekin ez badira moldatzen Larrean izango da).
- **19:30-21:30 eta 23:00etatik aurrera.** Dantzaldia Laiotz taldearekin plazan.

### Inude eta artzaik konpartsa

- **11:00.** Kalejira auzoz auzo.
- **14:30.** Bazkaria.
- **18:00.** Emanaldia plazan.

### Uztailak 28, astelehena

- **11:00.** Haur jaialdia Bihar taldearen Lagunekin baratzean emanaldiarekin, plazan.
- **12:00.** Apar festa Arroan.
- **16:00.** Mus txapelketa herrikoia Berdura plazan.
- **16:00.** Txirrindulari lasterketa.
- **19:00.** Txekor jatea eta sagardo dastaketa Txermingo Ikastolan.
- **22:00.** Rock kontzertua plazan.

### Jubilatuen Eguna

- **11:00.** Eskulanean erakusketa Berdura plazan.
- **14:00.** Bazkaria Txermingo ikastolan.
- **15:30.** Dantzaldia Burunda DJ-rekin Txermingo ikastolan.

### Uztailak 29, asteartea

- **10:30.** Haurrentzako sokamuturra Larrean.
- **12:00.** Haur jaialdia: Kulki talde-

- **17:30.** Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoak plazan.
- **18:30.** Joko garbi partida plazan.
- **19:00.** Argentinako Gazte Alai dantza taldearen saioa Arroan.
- **20:00-21:30.** Dantzaldia Kupe-la taldearekin plazan.
- **22:30.** Oinkari dantza taldearen emanaldia Arroan.
- **23:30.** Dantzaldia Kupela taldearen emanaldiaplazan.

### Uztailak 30, asteazkena

- **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak Loatzoko trikitilarietara.
- **12:00.** Jakin eta Jolas taldearen Ipunekin Jolasten antzezlan plazan.
- **12:30.** Iraunkorrak txaragaren kalejira (Koadrilen bazkariaren ondoren ere).
- **14:30.** Koadrilen bazkaria Etxeondan.
- **20:00-21:30.** Dantzaldia plazan Bide Batez taldearekin.
- **22:30.** Bertsolariak Arroan.
- **23:30.** Dantzaldia Bide Batez taldearekin plazan.

### Uztailak 31, osteguna

- **08:00.** Diana Tolosako dultzaineroekin.
- **09:00.** Sokamuturra Tolosako dultzaineroekin alaituta Larrean.
- **11:00.** Haur jolas parkea Txistularien plazan.
- **11:30.** Errebote partida plazan.
- **17:00.** Haur jolas parkea Txistularien plazan.
- **18:00.** Herri kirolak plazan.
- **21:30-00:00.** Abiba disko festa plazan.
- **00:00.** Erroskilaren akelarrea plazan.
- **01:00.** Abiba disko festa plazan.



## Gaur eta bihar, paletako sailkapen fasearen azken partidak

**Tolosa** » Ligaska jokatu ondoren bi talde bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira finalerdietarako.

### ERREDAKZIOA

Pasa den hilaren 10ean ekin zioten Berazubiko pilotalekuan Tolosa CFren 40. Paleta Txapelketari. Ordutik, zazpi partida jokatu dituzte eta gaur eta bihar artean sailkapen ligaxkaren azkeneko bi partidak jokatu dituzte.

Gaur bi neurketa izango dira jokoan; A taldean, Yugerosek eta Aldazabalek osatutako bikotea Zubillaga eta Elorza bikotearen aurka

ariko dira. B taldean, berriz, Arosategi-Zabala eta Zelaia anaiak bikoteek neurtuko dituzte euren indarrak. Partidak, ohi bezala, 19:00etatik aurrera izango dira.

Biharkoan, berriz, ligaxkaren azken jardunaldian, beste bi partidak izango dira Berazubin. B taldeko Zubeldia-Goitia bikotea Niko-Txepe bikotearen aurka ariko da nor baino nor. A taldeak, berriz, Apetegia-Maiza eta Lontxo-Nazabal bikoteen arteko partidak itxiko du jardunaldia.

Partida hauen ondoren, talde bakoitzean sailkatu diren lehen bi bikoteak pasako dira finalerdietara. Sailkatzen diren jokalariek txuriz jantzita jokatu beharko dute finalerdietako partida.

## Laburrak

### Gaztainondo elkartearen irteera etzi, Aragoira

**BERASTEGI** » Etzi, hilaren 24ean, Aragoira (Espainia) irteera antolatu du Gaztainondo elkarrean. Izen-ematea elkarrean bertan eman dezakete interesatuek.

### Bihar, TAKeko nesken traineruaren aurkezpena

**TOLOSA** » Bihar TAKeko nesken traineruaren aurkezpena egingo dute udaletxe parean 13:00etan. Bertan, Udala eta TAKen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatuko dute.

## Kolektorearen lanei ekingo diete Kondeaneko aldapan

**Tolosa** » Bihar hasiko dituzte lanak; ondorioz, zirkulazioa itxiko dute baina garajeetarako sarbidea bermatuko dute.

### ERREDAKZIOA

Herriko beste hainbat guneetan egin duen bezala, Tolosako Udalak Oria eta Zelai ibaietako kolektorea eraikitzeko lanak hasiko ditu bihar Kondeaneko Aldapan. Hori dela eta, Kondeaneko Aldapa zirkulaziorako itxiko dute. Hain zuzen ere, Bizkaia kaletik eta udal igerileku zaharretara doan tartea egongo da itxita.

Zonalde honetan garaiea duten bizilagunentzat sarbidea bermatuko du Tolosako Udalak. Horretarako, Izaskun eta Bidebieta azoetatik ordezko bidea proposatu dute. Udalerritik kanpo, berriz, sarbidea Tolosa Erdigunea autobiko irteeratik egingo dute.

### Herritarrek, une oro informatuta

Tolosako erdialdetik sartu nahi dutenek, Berazubiko auzoa zeharkatu behar izango dute suhiltzaileen biribilgunera arte, eta bertatik



Bihar ekingo diete kolektorearen lanei Kondeaneko aldapan. I. TERRADILLOS

Izaskun auzora zuzendu. «Ezintesteko jarduerak dira hauek tolosarrek egoera oneko flora eta fauna eta ur garbia izango duten Oria eta Zelai ibaietaz gozatu ahal izateko», adierazi dute Udal arduradunek; «uraren kalitatea eta saneamendu sistema hobetu nahian egi-

ten ari gara lan hauek», gaineratu dute.

Tolosako Udalak herritarrei, lanen martxari buruzko informazio puntuala ematen jarraitu eta lanak eragiten duten tokietan sortzen diren trafikoa arazozen berri emango du ezagutzera.

## Intxurre futbol taldean aritzeko deialdia zabaldu dute biharko

### ERREDAKZIOA

Alegiako Intxurre kirol elkarteak arduradunek 2008/09 denboraldirako deialdia zabaldu dute, jubenil (16-18 urte bitarteko) eta erreional mailan aritu nahi duten mutilentzat.

Interesa duten mutil horiek bihar azaldu beharko dute Alegiako Elorri futbol zelaira, 19:00etan eta kiroleko arropa soinean jantzita. Arduradunek jakitera eman dutenez, Intxurre taldean hasteko ez da beharrezkoa izango alegiarrak izatea, orain arte bezala.



Jokalariek ez dute zertan alegiarrak izan; irudian, 2007/08ko taldea. HITZA

## berria bekak 2008

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragai

# Txintxarriaren erreketak Karmen jaiak datorren urtera arte agurtu ditu

**Alegia** » Plazako eta Bulebarreko giroak herritar asko bildu zituen, batez ere kontzertu eta dantza saioen inguruan.

## NEREA URBIZU

Alegiako karmenak bukatu egin dira. Jendez eta giroz ezin kexa daude herritarrek: egunero jendea ibili da, egitarau zabalaren ondorioz, besteak beste. Asteartean hasi eta herenegun arte egon zen festa, herriko ia txoko guztietan. Txintxarria erre egin zuten, festen bukaera iragartzeko.

III. Txintxarri Harri-jasotze Txapelketan hiru bikote lehiatu ziren eta Izeta osaba-ilobak izan ziren indartsuenak, 10.348 kilo jaso baitzituzten guztira. Harri borobilarekin moldatu ziren hobekien. Ostolaza eta Urtzi Telleria bigarren saikatu ziren (10.321 kilo) eta azkenik Goenatxo eta Eizmendi gelditu ziren, 9.948 kilo jasota. Ondoren, urtarrelean mendian hil zen Mikel Garmendia trontzalari orendaindara omendu zuten.

Goizean arrantzale gaztetxoak Orian bildu ziren arrantzan aritzeko. 12 neska-mutil elkartu ziren eta Eneko Alonso, Ane Garcia eta Tania Sevilla izan ziren abilenak.

**Herenegun txintxarriari agur** Igande goizean txistulariak aritu ziren kalejiran. Ondoren pilota partidak izan ziren herriko gazteen artean. Bi kontzertu ikusi eta



Harri-jasotzaileak, hurrenez hurren: Goenatxo, Eizmendi, Telleria, Ostolaza, Izeta III.a eta Izeta IV.a. P. RENOBALDES

entzun ahal izan ziren plazan: Iñaki Dieguez Quartet eta Argentina-ko Ballet Nazionalakoak. Bietan ere jende asko bildu zen plazan hauek ikusteko, eta eskainitakoa atsegina bezain prestatua zegoela ikusi zen; saio bikaina eskaini zuten, bai batek eta bai besteak ere.

Tartean jai ofizialen eta alternatiboen artean zahagiardoa izan zen. herriko bertsolariak, Alegiako Gazte Asanbladaren eskutik ere izan ziren Bulebarreko eskenatokia, ondoren, kontzertuei lekua eginez.

Txintxarriaren erreketak izan ziren prestatuta zuten eguneko azken ekitaldia. Gero, bonbajaponiarrek ere jaurti zituzten, barruan haurrentzako jostailutxoak izanik.



Herriko lehengo eta oraingo txistularien diana. P. RENOBALDES

## Urbietak eta Zubirik irabazita, txapelketan aurrera egingo dute

### ERREDAKZIOA

Amezketako XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako partidak izan dira asteburuan, eta hauetan Altzoko eta Bidaniako pilotariak kanpo gelditu dira. Erniopeko Urbietak eta Aurrerako Zubirik, berriaz, aurrera egingo dute.

Ostiraleko emaitzak hauek izan ziren: Perosanz 18, Erauskin 4; Azkarate 8, Gorrotxategi 18; Senperena 10, Ezkurdia 18. Larunbatekoan 8 partidak izan ziren: Apezetxea 18, Lertxundi 12; Urbietak 18, Mayo 7; Loliola 18, Esnaola 2; Legarreta 18, Mendia 3. Gaueko partidetan Aurrerako Zubiri pilotariak 18, Biainek 10; Madarigal 13, Uhartea 18; Mitxelena 9, Muguruza 18.

## Gaur kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordearen bilera izango da

### ERREDAKZIOA

Gaur 20:30ean Amezketako balio-anitzeko gelan kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordea bilduko da. Bilera hauek irekiak dira, herritar guztientzat.

Eztabaidatuko dituzten gaiak jaien ingurukoak eta frontoien ingurukoak izango dira, besteak beste.



Bonba japoniarra jaurtitzeko prest, herriko plazan gauerdian. P. R.

**Tolosako Udala**  
IRAGARRIA

Tolosako Udalak, Kultura eta Gaztediko zuzendari bat aldi baterako hautatzeko premiazko deialdia egingo du.

Oinarririk eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharako 6 A zkan, edota udaleko web orrian ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)).

Eskaerak aurkezteko epea 2008ko uztailearen 24an bukatzen da, eguerdiko 13:00etan.

Tolosan, 2008ko uztailearen 18an.

ALKATEA,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON

**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK LANPOSTU BATERAKO DEIALDIA EGITEN DU**

**LANPOSTUA:**

- Anoetako Herri Ikastolan DBHn gizarte eta gaztelerako klaseak emateko.
- Ikasturte osorako izango da

**OINARRIZKO ESKAKIZUNAK:**

- Ingeles Filologian lizentziatua edo balioideak.
- Euskara (EGA) titulua edota balioideak.

Titulazio eta esperientzia baloratuko dira.

**KURRIKULUMAK** anoeta@ikastola.net-era bidali. Uztailearen 28ko 12:00etan epea bukatuko da.

**hitza** info

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako HITZAren bulegoan eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



# LAUKOAK UGARITZEN



eta amaren artean moldatzen dira gehienetan, emazteak asteko bi arratsaldeak jai ditu». Astean zehar ordutegi zehatza dutela aipatu digu Irastorak: «Arratsaldeko 19:30ean afaltzen hasten gara eta 20:30erako, haurrak hortzak garbitu eta pijama jantzita daude ohera joateko prest».

Haurrak txikiak direnean aitak uste du «gaur egun, askotan eme bakarra denari gauza gehiegi ematen zaio. Gureei ere ez zaie ezer falta baina denen artean gauzak gehiago konpartitzen ikasten dute». Amak gaineratzen du «gastua handia da baina beste era batera. Lehen ateratzen zinen eta gastatu egiten zenuen eta orain hori ez dago». Odriozola adibidea jarri du: «Orain albun eta kromoekin dabilta eta hauek, bakarra dute eta denen artean ari dira osatzen. Bakarra denak ere berea izango du».

## Askotan ume bakarra denari gauza gehiegi ematen zaio, gurek, konpartitzen ikasi dute

Hala ere, garbi dute ahazten doazen heinean gastuak handitzen joango direla.

Oporretarako kanpina dute gus-tuko eta pasadizo bat kontaktatu digute. «Aitor, txikiena jaio berria zen urtean, maleta eta eraman beharreko gauza guztiak garajera jaitsi eta kotxean sartu ostean konturatu ginen txikiena etxean lo utzi genuela».

Jendea harrিতa geratzen dela esan digute eta batzuentzat «Ze edertasuna» eta besteentzat «Hori da lana» izaten dela komentatzen dutena. Bosgarren baten bila joateko asmorik ba ote duten galdetu eta amak «ezetz bezala baina askotan pentsatu izan dugu zergatik ez bosgarren bat? baina ez, momentuz ez» eta aitak «galdera ikur bat» esanda utzi gaituzte.

Irastorza alaba bakarra da eta «orain etxean dugun giroa betidanik bota izan dut faltan». Memen-toz, «familia ugaria izateari alde onak baino ez dizkiot ikusten. Hemendik urte batzuetara ez dakit zer pentsatuko dugun baina une honetan oso pozik gaude, nahiz eta gero, askotan eguna erdi historiko bukatu, hurrengo egunerako ahaztu egiten da».

## Olano-Aranalde familia

Altzoko elkartearen egina genuen hitzordua Amaia Aranalde (Orexa, 1974), Xabier Olano (Altzo, 1959) eta beraien seme-alabekin. Zaharrena Joanen da eta 8 urte ditu, Haritzek 7, Usuek 5 eta txikiena Mikela da eta 2 urte ditu.

Nolatan animatu ziren lau seme-alaba izatera galdetu genien eta Amaiak azaldu digu «hiru izan genituen, bat bestea baino gehiago



Goiko irudian Odriozolarren familia dugu eta behekoan Olanotarren familia E. MAIZ/HITZA

**Familia ugariak** » Eskualdean ditugun familia ugarietako hirurekin elkartu gara; beraien eguneroko gauzetaz hitz egin digute.

### ENERITZ MAIZ

Orain arte oso ohikoa izan ez bada ere, gero eta bikote gehiago dira familia ugariak izatera animatzen direnak. Gainera, horietako asko lau haur izatera animatzen dira. Gu, eskualdeko hiru familirekin izan gara eta hauxe da kontaktatu digutena.

### Odriozola-Irastorza familia

Maika Irastorza (1973) eta Aitor Odriozola (1971) tolosar bikoteak lau seme dituzte. Urko 7 urtekoa, Alain eta Unax bikiak, 5 urtekoak eta txikiena Aitor, 2 urtekoa. Beraien, Berazubin elkartu ginen haurrak ikastolatik irten eta pistin bainu bat hartu ostean.

Nolatan animatu diren lau seme izatera galdetu genien eta Maikak azaldu digu «guri ikuspegia bikiak jaio zirenean aldatu zitzaigun. Bapatean lasai-lasai bizitzetik, ero etxe bat izatera pasa ginen eta jada berdín zitzaigun hiru edo lau izan». Beraien kasuan, seme bat izatetik hiru izatera pasa zirela aipatu digute eta hirutik lauera ez dutela aldaketarik sumatu. Aita-rentzat «aldaketarik handiena ez izatetik bat izaterako da eta lau izatearekin ondo antolatzea da kontua. Bezperatik hasten gara

pentsatzen biharko zer egin behar den edo jada ostiralean hastengara pentsatzen igandean zer egin behar dugun, programatu egiten dugu».

Goizero denek elkarrekin gosaltzen dute eta haurrak ikastolan utzi ostean doaz lanera. Txikienarekin aldiz, amona geratzen da. Bestalde, laguntza handia izan dute aiton-amonen aldetik eta Odriozolak azaldu digunez «amonarekin bazkaltzen dute normalean eta gu iristerako bazkalduta egoten dira. Arratsaldetan, amona

animatu zen, proposatu zuen eta laugarrenarekin animatu egin ginen» Xabierrek gehitzen du «Garai batean nola edo hala aurrera ateratzen ziren eta orain ere, daukaguna banatuz, aterako direla. Bakarrak izango lituzkeen beste ez dute izango baina daukaguna banatzea ere aberasgarria da» Amaiak jarraitzen du «bere alde onak eta txarrak ditu eta guk alde onak gehiago ikusten genizkion txarrak baino».

Biek lan egiten duten edota nola moldatzen diren galdetzean Aranaldek azaldu digu, «denetik izan dugu, biok lanean egon garenak ere. Laugarrenetik aurrera tarte batean eragin dut lana baina beti jor-nada erdian. Nik beti esaten dut lanarekiko exijentea naizela, nik lana egin ahal izateko baldintzabatzuk bete behar ditu. Xabier izan da beti lanari heldu diona eta ni moldatu naizena».

Egunak nolakoak izaten diren Olanok irribarretsu azaldu digu, «askotan negarrez hasi eta negarrez bukatu eta tartean ere negar-raldi asko baina parraldiak ere asko dira. Entretenitua eta lanpeturik baina ondo»

Lau haur dituztelako, denetik entzundutela dio amak «erotu al garen, mundu hau ez dagoela horrenbeste ume ekartzeko, Opusekoak al garen, nahikoa izango dugula eta ez ahal zaigula beste bat izateko bururatuko... baina nor bera kontentzitat baldin badago ez du eraginik».

Besterik izango ote duten galdetuta Aranaldek hauxe dio: «Uste dut ezetz eta uste dut alde batetik gehiago dagoela ezeko beste baina. Nik beti pentsatu izan dut ekarri beharrekoak segidan izan behar dutela; zaharrenak gazteenari edo gazteenak zaharrenari ez diezaiola puskatu nolabait familia-ren dinamika» Xabierrek bukatzen du «batzuetan pentsatu izan dut zoroaldi labur bat izan genuela».

Aiton-amonen laguntza handia izan dutela aitortu digute. Ingu-ruak ere asko laguntzen duela dio-

te «herri txikiak baldintza hobeak jartzen dituzte adin hauetan behintzat. Eskola ondoan dugu eta oinez joaten dira. Lagunen artean ere baten etxean edo bestean beste batean ibiltzen dira».

Amaiak dio «nik uste gaur egunean gutxina ematen zaiela ere asko ematen zaiela umei materialki. Gure ustez hobe delakoan ari gara, gero beraiek esango dute. Xabierrek azpimarratu digu «txiki-txikitatik dena konpartitzen erakutsi diegu, gauza materialak, denbora, gurasoekiko harrema-

### Muga ekonomikoa bigarren edo hirugarren mailakoa da, aurretik beste muga asko daude

nak». Aranaldek gaineratzen duenez, «gure etxean, seien artean dena konpartitzen dela erakutsi nahi diegu. Beti dena seien artean izango da, bai gauza onak eta baita gauza txarrak ere».

Bizi garen gizarte honetan posible ote den galdetzean etxeko amak hau dio «gaur egunean garestia, erdibidekoa eta merke-merkeak daukazu bai jateko edo arroparako. Gu adibidez, oporretara ez gara joan izan eta ez da derri gorrezkoa joatea eta pixkanaka gauzak uzten joaten zara. Guretzat ez da izan umeak ekarri edo ez ekarri baldintzatu duena, beste era batera planteatu dugu» Etxeko aitarrentzat, berriz, «haurrak izaterako orduan, muga ekonomikoa bigarren edo hirugarren edo laugarren mailakoa da, aurretik beste muga asko daukagu. Beste gauza batzuk sartzen dira, denbora esaterako, norberarentzat nahi bada, haur asko ezin izan. Muga ekonomikoa ez da nagusia ez da gutxiagorik ere». Aranaldek gehitzen duenez, «guk suertea izan dugu ni etxean egoteko aukera izan dugu eta. Nik garbi dut, haurrak izatekotan guk ahazteko direla, eta ez zortzi ordutik Haurreskolan egoteko. Ezin duenak hala egin beharko du, baina norberaren aukera da».

### » INKESTA

#### Familia ugarietzat dauden laguntzen edo ez daudenen inguruan zerbait esateko?



«Laguntza gehiagoren falta somatzen dut»

**Maika Irastorza**  
 TOLOSA

Pixkanaka-pixkanaka gauzak hobetzen badoaz ere, laguntza gehiagoren falta somatzen dut. Ez dugu erostetako karroan edo dendetan deskontua eskatuko baina jubilatuei edo laguntzen zaien bezala zerga bidez edo laguntza gehiago eskertuko litzateke, zergatik ez?



«Zailtasun handiak ditugu lanaldi erdia eskatzeko»

**Amaia Aranalde**  
 ALTZO

Sinbolikoak dira. Ematen dituzten laguntzengatik ez dugu inork izango, hori bai, ematen dutena jaso egiten dugu. Oso zaila dugu amok, edo aitak, amak diot ardura gehiago ematen dugulako gaur egun oraindik. Orduetarik bertatik hasita, izugarriko zailtasunak ditugu lanaldi erdia eskatzeko.



«Haserre gaude lan murrizketen laguntzekin»

**Irene Larraza**  
 TOLOSA

Objektiboki begiratuta familia ugariak ekarpena egiten diote gizaritari. Lan murrizketa hartzean ematen dituzten laguntzekin berriz haserre gaude, ez baitaude ongi antolatuta. Eta lanpostua sortu dugu eta errenta aitortpena egiterakoan ez da inon agertzen eta amorrua ematen dit.



Tolosako Zeberiotarren familia dugu hau. HITZA

## «Aita astean zehar gehiago dago etxean»

### E. MAIZ

Irene Larraza (Tolosa, 1970) eta Juantxo Zeberioaren (Tolosa, 1968) familia ere lau seme-alabez dago osatua eta tolosan bizi dira. Familia osoa biltzea zaila eta gu amarekin egon gara hizketan. Seme zaharrenak 9 urte ditu eta Martin izena du. Malentxok 7 eta Lorek 4 urte dituzte eta txikiena Joxe da eta urte bat du.

Lau seme-alabena galdetzean hau erantzun digu Larrazak: «Ez da izan hasieratik garbi genuen zerbait, banaka-banaka etorri dira. Inguuruan beste familia ugariak izateak asko animatzen du, adibidez jator bat ematen badizute. Ez dugu esperientzia txarrik izan

Juantxo eta nire familian, pribilegiatuak gara lau seme-alaba jator eta osasuntsu izan ditugu eta».

### Aitaren papera aldarrikatzen

Aitaren papera aldarrikatu nahi izan digu Larrazak: «Gure kasuan, astean zehar aita ni baino gehiago dago etxean. Biok egiten dugu lana etxetik kanpo baina berak aste egunetan lanaldi murriztua dauka eta bera dago umeekin ni baino gehiago. Nik kanpoan egiten dut lana behar-beharrezko ikusten dudalako nire buruarentzat, ez bakarrik ekonomikoki. Lana egin nahi dut eta hori oso garbi daukat. Eguerditik aurrera neska bat dugu laguntzeko eta beharrezkoa da.

Juantxo, iluntze askotan ez dago etxean eta asteburuetan ere lan egiten du eta neska ere ez dago eta orduan ni nago. Banaketa dago».

Amonen laguntza ere goraiatu digu. «Tolosan bizi dira eta beti hor daude: gaixoaldiko momentuetan edo beste edozein momentutan laguntzeko prest daude».

Gizarte honetan posible ote den galdetzean «haur asko izatean jarrerara aldatu egin behar da», dio. Beharbada bakar batekin gehiago agobiatu zintezke indar guztia hor duzulako jarrera. Lau dituzunean askatu egin behar duzu eta beste era batera hartzen duzu, eta banatzen zoaz eta hori pixkanaka ikasten den zerbait da. Beharbada al-

daketa handiena lehenengotik bigarrenekoak da».

Gastuen aldetik hauxe esan digu: «Hasieratik garbi genuen baina zer baloratzen duzun dago. Ume gabe seguru nago gehiago bidaletuko genuela edo aisialdian gastu gehiago izango genuela. Baina nik uste dut jendeak berdin gatzatzen duela haurrak izan edo ez». Adibide bat eman digu: «Etxean neska izatea etxeko lanak egiteko guretzat inbertsioa da. Dirua da baina, seme-alabak guretzako gauzarik inportanteenak dira eta behin haurrak oheratu eta gaeuen plantxan hasi behar izatea gehiegizko lana da, hurrenguegunean lanera joan behar izan da».

Haur bat bera ere ez dutela soberan azpimarratu digu eta oso ondo pasatzen dutela elkarrekin, nahiz eta, garrasi eta errietak egunero dauden. «Lana da, lotura da, dirua da, ardura da eta izango da, baina gure etxea, etxe alai da eta ez dugu ezer galtzen ari garenaren sentsaziorik. Lagunartea zaintzen eta bikote arteko harremana ere elikatzen saiatzen gara».

Bosgarrenari buruz galdetuta «printzipioz ezekoak» erantzun digu. Haurrek berriz, nahi dutela dio eta beraiek komentatzen dutela «hurrengor urtean beste ume txiki bat jaiotzen bada zeinekin egingo du lo eta horrelakoak, oso normala egiten zaie».



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Ibarra.** Abuztuaren 26an koadri- len bazkaria egingo da jaietan. Txartelak salgai egongo dira Sendi Ekintzan hilaren 17an, 23an eta 29an, 19:30etik 21:00ak arte, 22 eurotan.
- **Tolosa.** Bihar TAKeko nesken traineruaren aurkezpen ofiziala udaletxe aurrean 13:00etan. Honez gain, bertan, Udalaren eta TA-Ken arteko lankidetzak hitzarmena sinatuko dute.
- **Tolosa.** Sanblasipiko Gazte Asanblada euskal dantza (fandango eta arin arina) ikastaroa antolatuko du udako asteazkenetarako, 11:30etik 13:00etara, Otsabi gazte lokalean, Udaberri dantzari taldearen laguntzarekin.
- **Tolosa.** Bihar billar, ping-pong, futbolin... torneoa izango dira Topagunean 17:00etatik aurrera.

### Irteerak

- **Berastegi.** Uztailaren 24erako Aragoira irteera antolatuko du Gaztainondok, Liedena, Sos del Rey Catolico eta Zangotza bisitatzeko. Izen-ematea, Gaztainondon bertan egin behar da ahalik eta lehen.
  - **Tolosa.** Abuztuaren 29rako Laredora irteera antolatuko du Harizpek, Lore Festara. Bidaia-aren prezioa 30 eurokoa da bazkideentzat, eta gainontzekoentzat, berriz, 33 eurokoa. Izen-ematea, elkarte- an.
- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
  - **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskualdeko sei lagun Euskadiko 100 berritzaileen artean hautatu dituzte: Bernardo Atxaga, Edurne Pasaban, Josu Iztueta, Ainhoa Arteta, Jonan Fernandez eta Pello Zabala.

# 100 berritzaileen artean

### ERREDAKZIOA

**A**urtengoa Berrikuntza urtea dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 100 pertsona berritzaileen hautatu ditu Euskadi Innovacion 2008 argitalpenak eta horien artean eskualdeko sei lagun aurkitzen dira: Bernardo Atxaga asteasuarra, Edurne Pasaban tolosarra, Josu Iztueta tolosarra, Ainhoa Arteta tolosarra, Jonan Fernandez tolosarra eta Pello Zabala amezketarra.

Euskararen sendotasuna hizkuntza kultu gisa erakutsi duela munduan zehar aukeratu dute Atxaga. Munduko zortzi mila metro mendiko guztiak lortzeko bidea egiteagatik dago zerrendan Pasaban. Mundua autobus zahar baten bolantean korritzeagatik hauatu dute Iztueta. Euskadiren ahots ezagunena eta mirestuen azerrian izateagatik sartu dute Arteta. Euskadin bakea lortzearen aldeko ekarpenagatik hartu dute Fernandez. Meteosat alde batera utzita, tenporak eta eguraldia interpretatzen duen abileziagatik aukeratu dute Zabala.

Beste hautatu batzuk dira Etxenike zientzialaria, De la Iglesia eta Medem zinema zuzendariak, Celaya eta Saratxaga enpresariak, Rabanne modistoa, Arzak, Argiñano eta Aduriz sukaldariak, Laboa, Junkera, Ereñxun eta De Felipe musikariak, Urmeneta diseinatzailea, Garmendia ministra, Somarriba eta Oiarzabal kirolariak...

Innobasque, Spri, Deia, Diario de Noticias de Alava eta Noticias de Gipuzkoa dira Euskadi Innovacion 2008 argitaratu dutenak.



Ezker-eskuin eta goitik-behera: Atxaga, Pasaban, Iztueta, Arteta, Fernandez eta Zabala.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak